

COVID -19

Lantokietarako Jardunbide Egokien Gida

LANERA JOAN BAINO LEHEN:

- Covid-19ari lotutako edozein sintomaren aurrean, EZ joan lanera. Zure Osasun Zentroarekin jarri kontaktuan telefonoz eta beraiek ezarritako gomendioak jarraitu.
- Ez zara lanera bueltatu behar zuretzako edo besteentzako arriskurik ez dagoela ziurtatzen dizuten arte.
- Covid-19a duen pertsona batekin kontaktu estua izan baduzu, nahiz eta sintomarik ez izan, ez duzu lanera joan behar 14 egunez gutxienez. Sintomen jarraipen bat egin.
- Adinarengatik, haurdun bazaude, edo beste gaixotasun batzuk dituzulako ahula bazara, ez duzu lanera joan behar.

